

ESKORIATZAN EUSKARAREN ERABILERARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO 2014KO ARAUDIA

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera arauzkotzekoa, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, bestak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Horregatik, eta Udalaren diru laguntza emanez lortu nahi den interes publikoa eta Udalaren diru laguntza jarduerak bete behar dituzten printzipioak (hala nola publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna) betetzea bermatzeko, ordenantza hau egin du Udaltzak, parte hartzen duten udal organoen eta diru laguntzen onuradun izan litezkeen erakundeen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen marko juridiko orokorra jasotzeko. Eta behar den publizitatea emango dio dokumentuari, inplikaturik dauden alde guztiek jakin dezaten horren berri.

1. artikulua: X E D E A

Araudi honen xedea da 2014. urtean Eskoriatzan euskararen erabilerarako diru laguntzak emateko irizpideak arautzea.

2. artikulua: DIRU LAGUNTZA MOTAK

Bi diru laguntza mota daude:

- a) Euskara hutsezko errotuluak jartzeko diru laguntzak.
- b) Irudi korporatiboa euskaraz jartzeko diru laguntzak.

3. artikulua: DIRU LAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZAK

Euskara hutsezko errotuluak jartzeko diru laguntzak jasotzeko baldintzak

- Errotulua jartzeko baimena izatea.
- Errotulua euskara hutsean egotea.
- Errotuluan jardueraren izena agertzea (hau da, taberna, jatetxea,...).
- Testua zuzen idatzita egotea.

Irudi Korporatiboa euskaraz jartzeko diru laguntzak jasotzeko baldintzak

Irudi korporatiboaren **elementutzat** honako hauek hartzen ditu Eskoriatzako Udalak: Kartazalak, menbretedun orriak, bisita txartelak, entitatearen identifikazio zigilua, albaranak, fakturak, ibilgailuen errotulazioa, poltsak eta antzeko elementuak

Diru laguntza jaso ahal izateko beharrezkoa izango da Irudi Korporatiboaren elementuan agertzen den testua euskara hutsean egotea.



4. artikulua: ONURADUNAK

Diru laguntza hauek Eskoriatzako pertsona fisiko nahiz juridikoek eskuratu ahal izango dituzte. Izaera publikoa duten entitateei, berriz, ez zaie diru laguntzarik emango

5. artikulua: DIRU IZENDAPENA

Eskoriatzako Udalak 2014. urterako 0402.481.455.10.01 partidatik 1.000 euroko erreserba egiten du araudi honetan jasotzen diren diru laguntzak bideratzeko. Diru laguntza lerro bakoitzera, honako kopuruak zehazten dira:

1. Euskara hutsezko errotuluak jartzeko 500 euro
2. Irudi korporatiboa euskaraz jartzeko 500euro

Deialdi honetan finkatutako oinarrien arabera emango den diru laguntza kopuru totala ez da inoiz goian adierazitakoa baino handiagoa izango, beti ere indarrean dagoen legislazioak aurreikusten dituen kreditu aldaketa eta kreditu binkulazioak egin ahal izango direlarik. Guzti horiek eginda, kreditua agortzen denean, diru laguntza eskari berriak atzera botako dira.

Diru laguntza lerro bakoitzera aurkeztutako eskariak aztertu eta banatu beharreko laguntzak banatu ondoren, dirua batean sobera eta bestean falta geratu dela ikusiz gero, sobera geratutakoa beste lerro bateko beharretan erabiltzeko erabakia hartu ahal izango du dagokion organoak.

Hala ere, gertatuko balitz onartutako aurrekontuan izendatutako kredituarekin ezin zaiela diru laguntza eskari guztiei erantzun, eta horregatik eskari batzuk atzera bota beharra egon dela, atzera botatako horiei, hala iritziz gero, hurrengo urteko aurrekontu kredituetatik erantzun ahal izango zaie, beti ere Arau hauetan zehaztutako betekizunak betetzen baldin badituzte.

6. artikulua: DIRU LAGUNTZA KOPURUA

Baldintzak betetzen dituen eskaera guztiei gastuaren %30eko diru laguntza onartuko zaie eta hori aplikatuta diru-izendapenetik kopuru bat sobera geratuko balitz, eskaeren artean hainbanatu egingo da.

Egindako diru-izendapena eskaera guztien gastuaren %30a estaltzeko lain izango ez balitz, eskaera guztiei proportzionalki emango zaie diru laguntza diru-izendapena agortu arte.

7. artikulua: EPEA

2014ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira honako diru laguntzetarako eskariak.

8. artikulua: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Eskaera-orria behar bezala beteta.
- Baimen orria sinatuta, Eskoriatzako Udalak behar izanez gero, eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko baimena ematen duena.



- Jarriko den errotuluaren testu eta diseinu proposamena. Dagoeneko errotulua jarrita badago, haren argazkia.
- Gastuaren aurrekontua edo faktura (gastua eginda dagoenean).

9. artikulua: BETEBEHARRAK

Diru laguntza izendapena egiteko nahiz ordainketa agintzeko, diru laguntza mota bakoitzerako ERANSKINEAN jasotzen diren betebeharrak espezifikokoak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dira:

- Diru laguntza jasoko duen ekintza 2014. urtean egindakoa izatea.
- Jarduera martxan jartzeko Udalaren baimena izatea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako diru laguntzak jasotzeko debeku-kausenean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan. Eskatzaileak berriaz baimena eman beharko du organo eskudunek diru laguntza kudeatzen duen administrazio publikoari informazioa eman diezaioten eskatzaileak berak, edo hala badagokio, berak ordezkaturako pertsonak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko.
- Eskoriatzako Udalarekin edo haren menpeko erakunde autonomoekin edozein motatako zorrak eta zigorrak kirituta izatea.

10. artikulua: ORDAINKETA

Diru laguntza ordainketa bakarrean emango da gastua egin dela eta betebeharrak bete direla egiaztatutakoan eta dagokion organoak erabakia hartutakoan. Ordainketa diru laguntza emateko erabakia hartu eta gehienez 2 hilabeteko epean egingo da.

11. artikulua: ORGANO ESKUDUNAK

Instruktorea euskara azpibatzailearen zinegotzi arduraduna izango da. Instruktoarak, teknikariaren txostena jasotakoan eta Kultura batzailearen iritzia entzun ondoren, diru laguntza proposamena egingo dio alkateari, hark dagokion erabakia hartuz.

12. artikulua: EBAZPEN EPEA ETA JAKINARAZPENA

Eskariak aurkezteko epea bukatutakoan, euskara azpibatzaileak eskaera guztiak aztertu eta diru laguntza banaketaren proposamena egingo dio kultura batzaileari. Ondoren, 5. artikuluan zehaztutako organo eskudunak dagokien eskariak onartzea edo baztertzea eta baita diru laguntzak izendatzea ere. Diru laguntza izendapenarekin batera, diru laguntza osorik edo partzialki emango duen ere erabakiko du eta baita interesdunari informazio eta dokumentazio gehiago eskatuko dion ere.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean hartuko da hari buruzko erabakia. Epe horretan interesdunak jakinarazpenik jaso ezean, eskaria ez dela onartu ulertu beharko da.

13. artikulua: BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Araudi honetan zehaztutako betebeharrak bete ezean, onuradunari jasotako diru laguntza itzultzea eska dakiok eta aurreikusitako kopurua eman gabe utzi ahal izango da.



14. artikulua: INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuz gero, kultura batzorde informatzaileak haiei buruzko txostena egin eta Alkateari erabakia hartzeko proposamena egingo dio. Alkatea izango da erabakia hartzeko eskuduna.



NORMATIVA DEL AÑO 2014 PARA OTORGAR SUBVENCIONES QUE FOMENTEN EL USO DEL EUSKERA

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece en su artículo 5 los derechos fundamentales de que gozan todos los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia lingüística, y, a continuación, en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto hace extensivos dichos derechos a todos los ámbitos de la vida social. La ley, así mismo, dispone la obligación de todas las administraciones públicas a respetar, dentro de las competencias de cada institución, la política lingüística hacia los ciudadanos y promover el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, entre otras cosas.

Por dicho motivo, y con el objetivo de garantizar el cumplimiento del interés público perseguido con la concesión de la subvención y de los principios que deben inspirar la actividad subvencional del Ayuntamiento, como son la publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad, no discriminación, eficacia y eficiencia, el pleno municipal formula la presente ordenanza que trata de recoger el marco jurídico general regulador de la actuación de los distintos órganos municipales intervinientes y de los derechos y obligaciones de las entidades beneficiarias de las subvenciones, dándole a dicho documento la publicidad necesaria que permita su conocimiento por todas las partes implicadas.

Artículo 1: OBJETIVO.

Es objeto de esta normativa regularizar la concesión de subvenciones para el uso del euskera en Eskoriatza, en el año 2014.

Artículo 2: TIPOS DE SUBVENCIONES

Se distinguen dos tipos de subvenciones:

1. Subvenciones para rotulación publicitaria en euskera.
2. Subvenciones para la normalización lingüística en la imagen corporativa.

Artículo 3: CONDICIONES PARA RECIBIR SUBVENCIÓN.

Condiciones para recibir subvenciones para rótulos publicitarios en euskera

- Disponer de licencia para la colocación del rótulo.
- El texto debe estar escrito exclusivamente en euskera.
- Detallar en el rótulo la actividad, además del nombre del establecimiento (bar, restaurante,...)
- El texto deberá estar escrito correctamente.

Condiciones para recibir subvenciones para imagen corporativa

El Ayuntamiento de Eskoriatza entiende como **elementos** de imagen corporativa: los sobres (correspondencia), hojas con membrete, tarjetas de visita, sellos de identificación, albaranes, facturas, rotulación de vehículos, bolsas y elementos semejantes.

El texto deberá estar escrito exclusivamente en euskera.



Artículo 4: BENEFICIARIOS

Las personas físicas o jurídicas de Eskoriatza pueden optar a las tres líneas de subvención del artículo 2 de estas bases.

No se favorecerán con una subvención las entidades que pertenezcan al ámbito público.

Artículo 5: ASIGNACIÓN ECONÓMICA

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa para el 2014 asciende a la cantidad de 1.000 euros, y será financiado con cargo a la partida 0402.481.455.10.01. Se asignan las siguientes cantidades a cada línea de subvención:

1. Rotulación publicitaria en euskera, 500 euros
2. Normalización lingüística en la imagen corporativa, 500 euros

El volumen total de las ayudas a conceder no podrá superar el importe consignado a tal efecto en esta convocatoria, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe procediendo a la denegación de las que así se formulen.

Si una vez analizadas las solicitudes y asignadas las ayudas de cada línea de subvención, en algunas líneas hubiera remanente y en otras se necesitara mayor importe, el órgano correspondiente podrá decidir utilizar el dinero existente en una línea en otra que lo necesite.

No obstante, si hubiese solicitudes de ayudas relativas a actuaciones subvencionables que no puedan ser atendidas con los créditos presupuestarios del presente ejercicio y por tal motivo han sido denegadas, podrán ser atendidas con cargo a los créditos presupuestarios del ejercicio posterior siempre que las citadas actuaciones cumplan con lo establecido en las presente Bases para la obtención de una ayuda.

Artículo 6: CANTIDADES A SUBVENCIONAR

Todas las solicitudes que cumplan con los requisitos solicitados recibirán un 30% del coste como subvención. Una vez aplicado ese criterio si quedara remanente en la asignación inicial, éste será liquidado proporcionalmente entre las solicitudes, en función del gasto de cada una de ellas.

Si ocurriera que con la asignación presupuestaria reservada no se puede hacer frente en un 30% al gasto de cada solicitante, la subvención será otorgada proporcionalmente al gasto, hasta liquidar la consignación total.

Artículo 7: PLAZO DE SOLICITUD

Las solicitudes deberán de presentarse antes del 15 de diciembre de 2014,

Artículo 8: DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Se debe presentar ésta documentación:

- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.



- Autorización expresa para que los órganos competentes procedan a la cesión de información que acredite que el solicitante cumple con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- Propuesta del texto y del diseño del rótulo que se va a colocar. Si es un rótulo que ya está colocado, una foto del mismo.
- Presupuesto del gasto (o factura, si el gasto está realizado).

Artículo 9: OBLIGACIONES

Además de los requisitos específicos establecidos en el ANEXO para cada tipo de ayuda, habrá que cumplir estos otros requisitos para asignar las ayudas y ordenar el pago:

- En todos los casos deberá de cumplirse que la actividad objeto de subvención sea una actividad realizada durante el año 2014.
- Disponer de licencia municipal para la puesta en marcha de la actividad.
- No haber incurrido en ninguna de las causas de prohibición para percibir las ayudas que se contemplan en los párrafos 2 y 3 del artículo nº 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre
- Hallarse al corriente de los pagos tributarios y de la seguridad social. Quien cursa la solicitud deberá de dar expresamente su autorización para que los órganos competentes procedan a la cesión de la información que acredite que la solicitante, o en su caso la persona representada, cumple con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social a la Administración Pública gestora de la subvención.
- Tener liquidadas todas las deudas y sanciones de cualquier naturaleza con el Ayuntamiento de Eskoriatza y con los organismos autónomos dependientes de él.

Artículo 10: PAGO

El abono de la subvención se realizará en un único pago, una vez se haya certificado la realización del gasto y el cumplimiento de las obligaciones, y así lo ordene el órgano correspondiente. El pago se hará en un plazo máximo de 2 meses a partir de la fecha del acuerdo de concesión de la ayuda.

Artículo 11: ÓRGANOS COMPETENTES

El instructor será el concejal responsable de la subcomisión de euskera, quien a la vista del informe del técnico y tras conocer la opinión de la comisión informativa de Cultura elevará al alcalde la propuesta de subvención, para que adopte la resolución correspondiente.

Artículo 12: PLAZO DE RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la subcomisión de euskera las analizará y elevará la propuesta de adjudicación de las subvenciones a la comisión informativa de Cultura. Posteriormente, corresponde a los órganos competentes admitir o desestimar las solicitudes y asignar las ayudas. Junto a la asignación de las ayudas, el órgano decidirá el tipo de ayuda a conceder -parcial o total- y asimismo decidirá si va a solicitar más información o documentación a los interesados.

El plazo máximo de resolución será de dos meses a contar desde el fin del plazo de presentación de solicitudes. En el supuesto de no dictarse resolución dentro de dicho plazo, se entenderá que la solicitud queda desestimada.



Artículo 13: INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES

En caso de que los beneficiarios no cumplan los requisitos exigidos, serán requeridos para la devolución del dinero concedido y en su caso, se les retirará la subvención.

Artículo 14: INTERPRETACIÓN

El Alcalde de Eskoriatza resolverá las dudas que puedan surgir a la hora de interpretar dichas bases, previa lectura del informe realizado por la comisión informativa de cultura.